

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezin gainerako zergaren 2020ko ordainagiria kobratzea

Landa eta hiri ondasun higiezin gainerako zergaren 2020ko ordainagiria 2020ko uztailaren 18a eta irailaren 19a (biak barne) bitarteko egun baliodunetan ordaindu ahal izango da, borondatezko epean.

Zerga horrek eragindako zergadunek ordainketa helbideratuta ez badute, Zalduondoko Udalak Kutxabanken duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga-zorrak, aipatutako epean, aurrez ordainagiriak jasota udal bulegoetan, astelehenetik ostegunera, 11:00etatik 15:00etara.

Era berean, zergadunei gogorarazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela. Helbideratutako ordainagiriak banku erakundeetan kobratuko dira epe horretan.

Epe hori igarotakoan premiamendu bidez kobratuko da, halaxe xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak. Kobratu beharrekoari, berriz, legez ezarritako errenergua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutzen interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zalduondo, 2020ko ekainaren 29a

Alkatea

GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE